Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

## ERAKUNDE ADIERAZPENA, BIDEZKO MERKATARITZA ETA KONTSUMO ARDURATSUA SUSTATZEKO GASTEIZEN

### ATARIKOA

Mundu honetan globalizazioa, interkomunikazioa eta interdependentzia gero eta handiagoak dira, distantziak egunez egun laburtzen direla dirudi, baina, hala eta guztiz ere, herrialde aberatsen eta herrialde txiroen arteko tartea gero eta zabalagoa da.

Mundu honetan elikadurari eskubide izaera kendu egin zaio, eta salgai huts bihurtu da; hala, nazioarteko merkataritzaren arauek, oro har, eta nekazaritzako merkataritzaren arauek, bereziki, txirotasunetik ateratzeko dituzten aukerak murrizten dizkiete landa eremuko nekazariei eta lehengaiak esportatzen dituzten txirotutako herrialdeei.

Mundu honetan COVID-19 pandemiak agerian utzi du elikadura nekazarien ezinbesteko lanaren mende dagoela; beren egoerak okerrera egin du, ordea, banaketa-enpresa handiei mesede egiten dieten neurriek nekazari txikiei merkaturatzea eragozten baitiete.

Munduan kontsumitzen diren produktu manufakturatu gehienak, Hegoalde Globaleko langileek egiten dituzte (ehungintza edo teknologia, besteak beste); hala eta guztiz ere, kasu gehienetan ez dira beren lan-eskubideak errespetatzen eta ez dute jasotzen pobreziaren atalasetik gora mantentzeko soldatarik.

Klima-aldaketak bizkor aurrera egiten duen mundu honetan, mugarik gabeko ekoizpen- eta kontsumo-sistema batek bultzatuta, Hegoalde Globaleko biztanleria zaurgarrienak dira, batik bat, muturreko klima-

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL, POR EL FOMENTO DEL COMERCIO JUSTO Y EL CONSUMO RESPONSABLE DE VITORIA-GASTEIZ

### PREÁMBULO

En un mundo crecientemente globalizado, interconectado e interdependiente, donde las distancias parecen disminuir día a día, se agranda sin embargo la brecha entre los países enriquecidos y los países empobrecidos,

En un mundo en el que a la alimentación se le despoja de su condición de derecho y se la convierte en mercancía, las normas del comercio internacional en general, y del comercio agrícola en particular, condicionan por completo las expectativas de salir de la pobreza del campesinado de las zonas rurales y de los países empobrecidos exportadores de materia prima,

En un mundo en el que la pandemia de COVID-19 ha puesto en evidencia que la alimentación depende del vital trabajo del campesinado, empeora sin embargo su situación por culpa de medidas que dificultan su acceso al mercado mientras favorecen a las grandes empresas de distribución,

En un mundo en el que las trabajadoras y trabajadores del Sur Global elaboran la mayoría de los productos manufacturados que se consumen en el mundo (textil o tecnología, entre otros), en la mayoría de casos no se respetan sus derechos laborales ni reciben salarios que les permitan mantenerse por encima del umbral de la pobreza,

En un mundo en el que el cambio climático avanza con rapidez, empujado por un sistema de producción y consumo sin límite, son las poblaciones más vulnerables del Sur

fenomenoek eragindako kalte handienak jasaten dituztenak.

Mundu honetan zainketek eta etxeko lanek pertsonen bizitzari eusten dioten arren, horiek ez dute ez balio ekonomikorik ez sozialik, eta batez ere emakumeek egiten dituzte, horietako asko migratzaileak, pobreziaren eta migrazioen feminizazioa betikotuz.

## ADIERAZPENA

VITORIA-GASTEIZKO UDALAK, azken urteotan egindako lan guztia eta 2020an Zentzuz sarearekin sinatutako Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsua sustatzeko JARDUERA-PROTOKOLO OROKORREAN jasotako konpromisoak kontuan hartuta, eta honako hauek jakin badakizkiela:

- Pobreziari eta klima-aldaketari aurre egiteko eta giza garapen iraunkorra sustatzeko bide eta tresnak gero eta zabalagoak direla, eta pertsona, elkarte, enpresa, udal eta erakunde orok bere eguneroko jardunean arduraz joka dezan behar dutela.

- Administrazio publikoek eragin handia izan dezaketela merkatuetan, erosketa publikoen bolumena dela medio.

- Administrazioek dinamika mesedegarriagoak sor ditzaketela nazioarteko merkataritzaren arau bidegabeek eta krisi klimatikoak gehien eragiten dieten herrialdeentzat, Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak baliatuz.

- Administrazioek Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak bere egiten badituzte, hori eredu izan daitekeela bai enpresa hornitzaileentzat, bai mota guz-

Global las que sufren en mayor medida los estragos que provocan los fenómenos climáticos extremos,

En un mundo en el que los cuidados y el trabajo de hogar sostienen la vida de las personas, estos sin embargo no tienen valor económico ni social y son realizados mayoritariamente por mujeres, muchas de ellas migrantes, perpetuando la feminización de la pobreza y de las migraciones.

## DECLARACIÓN

EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ, teniendo en cuenta todo el trabajo realizado a lo largo de los últimos años y los compromisos recogidos en el PROTOCOLO GENERAL DE ACTUACIÓN por el fomento del Comercio Justo y el Consumo Responsable de Vitoria-Gasteiz, suscrito con la red Zentzuz en 2020, es consciente de:

- Que las vías y herramientas en la lucha contra la pobreza, el cambio climático y la promoción del Desarrollo Humano Sostenible son cada vez más amplias e interpelan a la responsabilidad de todas las personas, asociaciones, empresas, corporaciones e instituciones en su funcionamiento cotidiano,

- La gran capacidad de incidencia que tienen las administraciones públicas en los mercados gracias a su volumen de compra pública,

- Que las administraciones públicas pueden generar unas dinámicas más favorables para los países más afectados por las normas injustas del comercio internacional y por la crisis climática, mediante la inclusión de criterios de Compra Pública Ética y de Comercio Justo,

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

tietako enpresentzat, bai herritar guztientzat, eguneroko jardunean ingurumenari begira gizartean dagokien ardura bere gain har dezaten.

- Que las actuaciones de las administraciones públicas para incorporar criterios de Compra Pública Ética y de Comercio Justo pueden servir como ejemplo tanto a las empresas suministradoras como a las empresas en general y al conjunto de la ciudadanía para asumir su respectivo grado de responsabilidad social y medioambiental en sus actuaciones cotidianas.

## BERRESTEN DU:

- Munduko pobreziaren eta desberdintasunaren jatorriei aurre egiteko prozesuetan laguntzeko konpromisoa; hala, bat egiten du pobreziaren eta klima-aldaketaren kontra eta Giza Garapen Iraunkorraren alde aritzeko helburua duten mota guztietako ahaleginekin.

## REITERA:

- El compromiso por apoyar procesos que combatan las raíces de la pobreza y la desigualdad en el mundo y sumarse de esta manera a los esfuerzos de todo tipo dirigidos a combatir la pobreza, el cambio climático y a promocionar el Desarrollo Humano Sostenible.

## ADIERAZTEN DU:

- Bere nahia dela munduko pobreziari aurre egiteko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko abiarazi diren jarduera guztiak egiaz aberats eta osa daitezen herrialde txiroenekiko eta planetarekiko arduratsuagoak diren jarrera eta praktika berrien bidez.

- Bere nahia dela dagokion ardura bere gain hartzea eguneroko funtzionamenduan, bere jarduera eremuan, pixkanaka eta beste ekimen batzuei uko egin gabe, ondasun eta zerbitzuen erosketa publikorako irizpide berriak sartuz.

## EXPRESA:

- El deseo de que las acciones que se han emprendido para combatir la pobreza en el mundo y para promover el Desarrollo Humano Sostenible se vean efectivamente enriquecidas y complementadas por nuevas actitudes y prácticas más responsables con los países más pobres y con el planeta.

- El deseo de aceptar el grado de responsabilidad que le corresponde en su funcionamiento cotidiano, incorporando progresivamente desde su ámbito de actuación, y sin perjuicio de otro tipo de iniciativas, nuevos criterios de compra pública ética de bienes y servicios.

## BERE EGITEN DU:

- Ondasun eta zerbitzuen Kontsumo Arduratsua printzipio gisa.

## ASUME:

- El Consumo Responsable de bienes y servicios como principio.

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

www.vitoria-gasteiz.org



- Erosketa Publiko Etikoa, erreferentzia esparrutzat, horren barruan pobreziaren eta klima-aldaketaren aurka jarduteko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko jarduera berriak aurrera eramateko, hala nola Bidezko Merkataritzako produktuak erosketa politiketan sartzea eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko ekimenak bultzatzea.

- Bidezko Merkataritza eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Garapenerako Lankidetzako tresna baliagarritzat, Giza Garapen Iraunkorrerako, genero berdintasunerako, ekoizleen aurrerapen sozial eta ekonomikorako, aberastasuna era bidezkoagoan banatzeko, ingurumen orekarako eta kulturen errespeturako egin duen ekarpena aitortuta.

**ADITZERA EMATEN DU:**

- Pobreziari eta klima-aldaketari aurre egiteko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko aurrera eramaten dituen jardueren eragina zabaltzeko moduko bideak abiarazi edo sendotzeko konpromisoa; bide horiek Garapenerako Lankidetzan ditugun betiko politiken osagarri izango dira, Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak ondasun eta zerbitzuen gure eguneroko kontsumo-jardunean erabiliz, betiere.

**BERE GAIN HARTZEN DITU:**

- Erosketa Publiko Etikoaren irizpideak erabiltzen hasteko jarduerak abian jarri edo sendotzeko konpromisoa, arlo horretarako ildo estrategikoak eta epe labur, ertain nahiz luzerako jarduerak izango dituen lan plan bat taxutuz.

- La Compra Pública Ética como el marco de referencia donde ir desarrollando nuevas actuaciones en su lucha contra la pobreza, el cambio climático y la promoción del Desarrollo Humano Sostenible, tales como la introducción de productos de Comercio Justo en las políticas de compras y el impulso de iniciativas de Economía Social y Solidaria,

- El Comercio Justo y la Economía Social y Solidaria como herramienta eficaz de la Cooperación para el Desarrollo, reconociendo su contribución al Desarrollo Humano Sostenible, a la equidad de género, al progreso social y económico de los productores y las productoras, al reparto más equitativo de la riqueza, al equilibrio medioambiental y al respeto cultural,

**MUESTRA:**

- El compromiso para emprender o afianzar vías que permitan ampliar el impacto de sus actuaciones en la lucha contra la pobreza, el cambio climático y en la promoción del Desarrollo Humano Sostenible, vías complementarias a nuestras políticas habituales de Cooperación para el Desarrollo, todo ello mediante la asunción de criterios de Compra Pública Ética y de Comercio Justo en nuestra actividad cotidiana de consumo de bienes y servicios.

**SE COMPROMETE A:**

- Iniciar o consolidar las actuaciones tendentes a incorporar criterios de Compra Pública Ética, mediante la adopción de un plan de trabajo que incluya líneas estratégicas y acciones a corto, medio y largo plazo en la materia.

- Udalaren Zerbitzu ezberdinetako erosketa politiketan Bidezko Merkataritzako produktuak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko zerbitzuak sar daitezen bultzatzeko konpromisoa; hain zuzen, Erosketa Publiko Etikorako lehen jarduera zehatzetako bat izango da.

- Impulsar la introducción de productos de Comercio Justo y servicios de la Economía Social y Solidaria en las políticas de compra en los diferentes Servicios del Ayuntamiento como una de las primeras acciones concretas de Compra Pública Ética.

- Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntzari dagozkien ildo estrategikoen barruan, Bidezko Merkataritzaren inguruko jarduerak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa; horretarako, beharrezko aldaketak egingo dira bai ildo estrategikoetan, bai Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako proiektuak diruz laguntzeko egiten diren deialdietan.

- Seguir impulsando actividades relativas al Comercio Justo dentro de las líneas estratégicas en materia de Cooperación y Educación para el Desarrollo, introduciendo para ello las modificaciones necesarias tanto en las líneas estratégicas así como en las respectivas convocatorias públicas de subvenciones a proyectos de Cooperación y Educación para el Desarrollo.

- Herritarrak informatzeko eta sentiberatzeko konpromisoa, Erosketa Publiko Etikoak eta Bidezko Merkataritzak, baita ondasun eta zerbitzuen kontsumo arduratsuak ere, pobreziari eta klima-aldaketari aurre egiteko, genero berdintasuna lortzeko eta mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat izateko duten eragin positiboaz.

- Informar y concienciar a la ciudadanía sobre los impactos positivos de la Compra Pública Ética y el Comercio Justo, así como del consumo responsable de bienes y servicios en general, en la lucha contra la pobreza y el cambio climático, en la equidad de género y a favor de un mundo más justo y sostenible.

- Ondasun eta zerbitzuen kontsumo arduratsua bultzatzea, bereziki, zainketen eta etxeko lanen demokratizazioarekin zerikusia dutenak.

- Impulsar el consumo responsable de bienes y servicios, y en particular aquellos que estén relacionados con la democratización de los cuidados y el trabajo de hogar.

- Azken urteotan bezala, Udaleko hainbat zerbitzutatik (Garapenerako Lankidetza, Merkataritza, Herritarren Parte-hartzea, Berdintasuna …) Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Arduratsua sustatzen duten gizarte-erakundeen lana babesten jarraitzea.

- Continuar con el apoyo expresado durante estos últimos años desde diferentes Servicios del Ayuntamiento (Cooperación al Desarrollo, Comercio, Participación Ciudadana, Igualdad…), al trabajo de las organizaciones sociales que promueven el Comercio Justo y el Consumo Responsable en la ciudadanía gasteiztarra.